

**DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024****ELANKIDETZA**

1. Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak	2
2. Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko estrategien modalitatea	4
3. Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeentzako laguntzak	6
4. Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak	8
5. Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean	10
6. Garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzak	12
7. Garapenerako lankidetzarako Ignacio Ellacuria saria	14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak

2.- Araua

62/2017 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 28koa, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baitira garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko lau beka, 2024rako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/03/1701533e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2402858e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/10/2404841e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzea, eLankidetzaren bulegoetan garatuko diren prestakuntza-beken bidez. 2024an deitutako 4 beken esparruak hauek dira:

- a) Generoa eta garapena
- b) Ekintza humanitarioa
- c) Gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta komunikazioa
- d) Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak babestea

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

22 eskabide aurkeztu ziren deialdira, eta horietatik 11k ez zuten egiaztatu eskatutako baldintzak betetzen zituztela. Gainerako 11 eskaeretatik, 3k ez zuten lortu eskatutako gutxieneko puntuazioa, eta, beraz, 8 hautagaik jaso ahal zuten beka.

Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak:

- Deitutako espezialitateetako bat "generoa eta garapena" izan da.
- Balorazio-batzordea modu parekidean eratu zen emakumeen eta gizonen artean.
- Esleipendun izan ziren 4 pertsonak emakumeak izan ziren.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Eskatutako espezializazio- eta prestakuntza-beken kopurua	40	22
Espezializazio- eta prestakuntza-beken onuradunak	4	4
Espezialitate-kopurua	4	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko estrategien modalitatea

2.- Araua

90/2019 DEKRETUA, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen.

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 28koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2024ko ekitaldirako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903129e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401330e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/ah_ehe_2024/eu_def/adjuntos/EHAA-03061-ZB.pdf

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/07/2403301e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak pairatzen dituzten pertsonen bizitza salbatzeko, sufrimendua arintzeko eta giza duintasuna eta eskubideak babesteko ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzea, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bidez identifikatuta.

Ekintza humanitarioko proiektuen modalitatearekin alderatuta, ekintza humanitarioko estrategien modalitatean epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak sartzen dira, eta, krisi humanitarioek eragindako pertsonak babesteko ekintzez gain, erakunde humanitarioak indartzeko eta euskal herritarrek sentsibilizatzeko beste ekintza batzuk ere sartzen dira, eremu horretan espezializazio-maila handiagoa duten erakundeek dinamizatzen dituztenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren zuzkidura 4.800.000 eurokoa izan zen, eta 6 estrategia onartu ziren, 800.000 euroko gehieneko zuzkidurarekin. Emaitza hasieran aurreikusitako 6 estrategiak onartzea izan zen, guztira 4.773.259,61 €-ko zenbatekoarekin. % 99,44ko aurrekontu-betearazpena ekarri zuen, eta soberakin txiki bat esleitu gabe geratu zen, estrategia gehigarri bat finantzatzeko nahikoa ez zena. Era berean, deialdiak konprometitu zuen

Afrikan gauzatu beharreko gutxienez 3 estrategiaren dirulaguntza, haien puntuazioa edozein izanda ere eta baldintzak betetzen bazituzten. Konpromiso hori lortu zen.

Diruz lagundutako ekintza humanitarioko 6 estrategiak honako hauek dira:

- 3 ekimen Afrikan: 2 Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa-SEADen (saharar errefuxiatuekin) eta 1 Kenyan (Somaliako, Etiopiako, Hego Sudango, Ugandako, Kongoko Errepublika Demokratikoko eta Kenyako harrera-komunitateetako errefuxiatuekin). Bi estrategia horiek, neurri batean edo osorik, ahaztutako krisiei erantzuten diete, 2024ko Europar Batasunaren zerrendaren arabera (Sahara, Hego Sudan eta Kongoko Errepublika Demokratikoa).

- 2 ekimen Ekialde Hurbilean: 1 Sirian (Palestinako errefuxiatuekin eta Siriako desplazatuekin) eta 1 Libanon (Palestinako eta Siriako errefuxiatuekin eta harrera-komunitateekin).

- Ekimen bat Latinoamerikan, zehazki Kolonbian eta Ekuadorren (Venezuela, Kolonbia eta Ekuadorreko behartutako mugikortasun-egoerako pertsonekin, eta harrera-komunitateekin).

Era berean, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeke honako neurri hauek hartu ziren:

- Genero-ikuspegia "esku-hartzean zeharkako ikuspegiak txertatzea" irizpidearen barruan balorazio-elementu gisa sartzea.

- Genero-politika erakunde mailan txertatzea balorazio-elementu gisa hartzea kontuan "erakunde onuraduna" eta "tokiko bazkidea" irizpideen barruan.

- Emakumez bakarrik osatutako hautaketa-batzordea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako ekintza humanitarioen estrategietako laguntza kopurua	12	10
Emandako ekintza-humanitarioen estrategietako laguntza kopurua	6	6
Emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	5	5
Emandako ekintza humanitarioko esparru-estragietatik, Afrikan gauzatzen den estrategia kopurua	3	3
Modalitate honetako laguntzen onuradunak	--	100.000
Emandako proiektuak inplementatzen dituzten tokiko bazkideak	--	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeentzako laguntzak

2.- Araua

40/2018 DEKRETUA, martxoaren 27koa, zeinaren bidez arautzen baitira genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetzarako erakundeei eman beharreko laguntzak.

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 6koa, eLankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetzarako erakundeei laguntzak emateko deialdia egiten duena, 2024ko ekitaldirako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018001818>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/06/2403008e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/10/2404706e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza-programaren helburua garapenerako lankidetzarako euskal erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak finantzatzea da. Laguntza horiek generoaren partaidetza-diagnostikoak, genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoak eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoen inplementazioa eta ebaluazioa finantzatzeko ematen dira.

Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketaren prozesuak erakundeetan gogoeta eginez eta ekintzak martxan jarri gauzatzen dira. Ekintza horiek ekarriko dute gaur egun dauden egiteko eta pentsatzeko moduak aldatzea, erakundearen funtzionamendu-eremu guztietan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, antolaketa-kultura eta abar) gertatzen diren genero-desberdintasunak desagerrarazteko.

Dirulaguntzen programak 4 fase finantzagarri ditu:

- Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea.
- Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea.
- Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea.
- Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizoneen arteko



eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdira 11 eskabide aurkeztu ziren, eta horietako batek ez zituen egiaztatu laguntzen esleipendun izateko beharrezko baldintzak. Gainerako 10 eskaeretatik, 9k dirulaguntza lortu zuten, eta gainerakoa kanpoan geratu zen, ezarritako gutxieneko puntuazioa ez zuelako lortzen. Diruz lagundutako eskabideak honako hauek izan ziren:

- a) fasea: diruz lagundutako 6 eskaera
- b) fasea: ez dago diruz lagundutako eskaerarik
- c) fasea: diruz lagundutako 3 eskaera
- d) fasea: ez dago diruz lagundutako eskaerarik

Aurrekontuaren betearazpena % 68,02koa izan zen, eta soberakin garrantzitsu bat esleitu gabe geratu zen, ekintza humanitarioko proiektuen dirulaguntza programara eraman zena.

Dirulaguntzen programa, bere osotasunean, berdintasuna sustatzera eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzera bideratuta dago. Horrez gain, hautaketa-batzordea gehienbat emakumeek osatu zuten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko eskatutako laguntza kopurua	14	11
Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko emandako laguntza kopurua	12	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak

2.- Araua

180/2023 DEKRETUA, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzako programetarako laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2024ko apirilaren 12koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzak emateko deialdia, 2024. urterako

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400143e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/05/2402228e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/09/2404452e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetza-programak Iparraldean eta Hegoaldean ekintzak modu koherente eta osagarrian integratzen dituzten ekimenak dira, eta tokiko ikuspegi global batetik giza garapen iraunkorrerantz aurrera egitea dute helburu. Garapenerako lankidetza-programek bi finantzaketa-fase dituzte, bereiziak eta elkarren segidakoak: identifikazio-fasea eta gauzatze-fasea. Bakoitzari dagokion deialdi publikoaren bidez emango zaio dirulaguntza, eta, egikaritze-fasean parte hartzeko, beharrezkoa izango da identifikazio-fasea aldeztu aurretik diruz lagundu izana.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024an, dekretu berriak babestutako programetarako laguntzen lehen deialdia egin zen, zehazki, identifikazio-faserako. 15 eskabide aurkeztu ziren, horietako bat bikoiztuta eta beste bat laguntzen esleipendun izateko baldintzak betetzen ez zituen erakunde baten eskutik. Aztertu ziren 13 eskaeretatik, 5 diruz lagundu ziren, 3 ukatu egin ziren horietako funtsak agortu zirelako, eta gainerako 5ak baztertu egin ziren 50 puntuko gutxieneko puntuaziora ez iristeagatik, Dekretuan adierazitako tresnaren nortasun-elementuekin nahikoa lerrotuta ez baitzeuden. Diruz lagundutako eskabideek kokapen geografiko hau dute: 1 Afrikan, 1 Hego Amerikan, 2 Erdialdeko Amerikan eta 1 Latinoamerikan. Horri dagokionez, deialdiak dirulaguntza bat emateko konpromisoa hartu zuen, garatzen zen Hegoaldeko herrialde nagusia Afrikari



zegokion programarako, haren puntuazioa edozein izanik ere, eta baldintzak betetzen bazituen. Konpromiso hori betetzea lortu zen.

Aurrekontuaren betearazpena % 99,90ekoa izan zen, eta soberakin txiki bat esleitu gabe geratu zen, identifikazio gehigarri bat finantzatzeko nahikoa ez zelako.

Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak

- Erakunde eskatzaileentzat genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan bat indarrean izateko baldintza.
- Exekuzioan parte-hartze handiena duten elkarteko erakundeentzat genero-politika instituzionala indarrean izateko baldintza.
- Balorazio-irizpide espezifikoak, "proposatutako identifikazio-prozesua" atalaren esparruan, emakumeek identifikazio-prozesuan parte-hartze aktiboa izango dutela bermatzera bideratuko diren ekintzak baloratzera zuzenduta.
- Batez ere emakumez osatutako balorazio-batzordea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	7	13
Emandako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	5	5
Emandako identifikatzeko faseak kokatzen diren herrialdeak	--	10
Emandako identifikatzeko faseetatik, Afrikara bideratutako funtsak	--	29.980,59



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean

2.- Araua

90/2019 DEKRETUA, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen.

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 28koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, 2024ko ekitaldirako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903129e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/03/2401330e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/12/2405719e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak pairatzen dituzten pertsonen bizitza salbatzeko, sufrimendua arintzeko eta giza duintasuna eta eskubideak babesteko ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzea, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bidez identifikatuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hasieran deialdiaren zuzkidura 5.600.000 €-koa izan bazen ere, deialdiaren azken zuzkidura 5.705.803,95 €-koa izan zen, eta 29 proiektu onartzea eta esleitutako aurrekontuaren % 100 gauzatzea ahalbidetu zuen. Zuzkidura-handitze horri esker, halaber, hasieran ezarritako 2.800.000 euroko erreserba gainditu zen, eskatutako baldintzak betetzen zituzten Afrikan gauzatu beharreko proiektuak finantzatzeko. Hauek dira diruz lagundutako 29 proiektuak:

- 15 ekimen Afrikan. 4 ekimen Etiopian (biztanleria desplazatua Tigrayn, errefuxiatu hegosudandarrak Gambellako zelaian eta desplazatuak eta jatorrietara berriz bueltatutakoak Afarren), 2 ekimen Malin (barne desplazatuak eta Zantingula eremuan), 3 ekimen Aljerian (errefuxiatu sahararrak Tindoufen), 2 ekimen Kongoko Errepublika Demokratikoan (barneko desplazatuak, itzultitakoak, harrerako biztanleak eta iheslariak), ekimen 1 Txaden (biztanleria desplazatua Txad aintziran), ekimen 1 Nigerren (barne



desplazatuak eta errefuxiatuak Nigerian), ekimen 1 Hego Sudanen (indarkeriaren eraginpeko adingabeak) eta 1 Kamerunen (barne desplazatuak Dualako zonalde anglofonoan).

- 8 ekimen Ekialde Hurbilean. 5 Palestinan (Gazan, Zisjordanian eta Jerusalemeko populazioa, bazuk bizi errefuxiatu-estatusarekin) eta 3 Libanon (errefuxiatu palestinarrekin eta siriarrekin eta Libanoko harrera-biztanleriarekin).

- 6 ekimen Latinoamerikan. 1 Venezuelen (lekualdatzeko arriskuan dagoen populazioarekin eta itzultako biztanleekin Caracasen, Tachiran eta Zulian), 2 Kolonbian (Chocó eta Buenaventuran lekuz aldatuta edo mugitzeko arriskuan dauden pertsonekin), eta 3 Erdialdeko Amerikako korridorean (1 Guatemalan, 1 Mexikon eta 1 Hondurasen).

Era berean, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko honako neurri hauek sartu ziren:

- Genero-ikuspegia "esku-hartzean zeharkako ikuspegiak txertatzea" irizpidearen barruan balorazio-elementu gisa sartzea.
- Genero-politika erakunde mailan sartzea balorazio-elementu gisa "erakunde onuraduna" eta "tokiko bazkidea" irizpideen barruan.
- Emakumez bakarrik osatutako hautaketa-batzordea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako ekintza humanitarioen proiektuetako laguntza kopurua	35	37
Emandako ekintza-humanitarioen proiektuetako laguntza kopurua	30	29
Emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	17	15
Emandako ekintza humanitarioko proiektuetatik, Afrikara bideratutako funtsak	2.800.000,00 €	2.935.554,03 €
Modalitate honetako laguntzen onuradunak	150.000	150.000
Baimendutako gehieneko eskabide kopurua esleitu zaien erakunde eskatzaileak	8	9
Emandako proiektuak inplementatzen dituzten tokiko bazkideak	29	31



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

34/2007 DEKRETUA, otsailaren 27koa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.

390/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.

AGINDUA, 2024ko martxoaren 12koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2024. urterako garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2007/03/0701588e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/07/1303436e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/04/2401660e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/pro_2024_k1/eu_def/adjuntos/BOVP-EUSK.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetza-proiektuak diruz laguntzea, hiru modalitatetan:

- a) Garapenerako lankidetza-proiektuak
- b) Produkzio-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak
- c) Garapenerako hezkuntza-proiektuak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Diruz lagundu ziren 59 proiektu a) modalitatean (15 Afrikan, 2 Asian, 26 Erdialdeko Amerikan, Mexikon eta Kariben – aurrerantzean CAMEXCA – eta 16 Hego Amerikan); 3 proiektu b) modalitatean (2 Hego Amerikan eta 1 CAMEXCAn); eta 24 proiektu c) modalitatean, guztiak Euskadin (12 hezkuntza formalean, 5 hezkuntza ez-formalean eta 8 hezkuntza informalean).

a) modalitatean, aurrekontuaren gauzapena % 100ekoa izan zen. b) modalitatean, aurrekontuaren gauzapena %62,35ekoa izan zen, eta ez zen egon hasieran esleitutako zuzkidura emateko eskatutako baldintzak betetzen zituen eskaera nahikorik. c) modalitatean, aurrekontuaren gauzapena % 99,59koa izan zen, eta soberakin txiki bat esleitu gabe geratu zen, proiektu gehigarri bat finantzatzeko nahikoa ez zelako.



Modalitate guztiek jasangarritasun ekologikoa eta genero-ikuspegia barne hartu zituzten esku-hartzeak baloratzeko irizpideen barruan baloratu beharreko zeharkako ikuspegi gisa. Erakunde eskatzaileetan eta haien tokiko aliatuetan genero-ikuspegia maila instituzionalean txertatzea ere baloratu zen. Osagarri gisa, eskaerak baztertzeko irizpide gisa ezarri zen genero-ikuspegia ez txertatzea. Eskaerak baloratzeko batzordearen erdia baino gehiago emakumeek osatu zuten, eta bertan parte hartu zuen eLankidetzako genero- eta garapena-teknikariak. Azkenik, kolektibo ikusezin eta/edo minorizatuak esku-hartzeetan parte hartzea ere kontuan hartu zen eskaeren balorazioan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako garapenerako lankidetzako proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K1)	125	102
Emandako garapenerako lankidetzako proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K1)	62	59
Eskatutako garapen produktiboko proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K2)	8	8
Emandako garapen produktiboko proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K2)	5	3
PRO-K1 eta PRO-K2n emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	24	23
Emandako garapenerako eta garapen produktiboko proiektuetatik Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratutako funtsak	8.000.000 €	7.774.834,17 €
Eskatutako Garapenerako hezkuntzako laguntza kopurua (PRO-K3)	48	37
Emandako Garapenerako hezkuntzako laguntza kopurua (PRO-K3)	25	25
Onartutako proiektuen artean, "Emakumeen ahalduntzea" sektorean kokatutako proiektu kopurua	24	15
Onartutako proiektuen artean, "Defendatzaileak babesteko" sektorean kokatutako proiektu kopurua	13	13
Deialdi osoan gutxienez laguntza bat jaso duten erakunde eskatzaileak.	48	51
Baimendutako gehieneko eskabide kopurua esleitu zaien erakunde eskatzaileak	1	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetzarako Ignacio Ellacuria saria

2.- Araua

79/2020 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, garapenerako lankidetzari buruzko «Ignacio Ellacuria» saria arautzen duena.

EBAZPENA, 2024ko irailaren 12koa, eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuria» Sariaren 2024ko deialdia iragartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002741e.pdf>

Deialdiaren ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/09/2404450e.pdf>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024005463>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetzarako Ignacio Ellacuria sariaren helburua da egindako ibilbidearekin herrien artean berdintasuna eta justizia sustatzen, pobrezia gainditzeko eta ekarpen hori hedatzen laguntzen duten pertsonen, antolakundeen, taldeen, edota ekimenen jendaurreko aitortza egitea da, bai eta pertsona, antolakunde, talde edo ekimen horiek saritzea ere, jendartearen sentsibilizatzen laguntzen baitute.

Saria jasotzeko hautagai izan daitezke euskal gizartearekin harreman berezia duten eta, beren jarduketarekin, ekimenekin nahiz ibilbidearekin, herrien justiziaren eta garapenaren alde modu nabarmenean laguntzen edo lagundu duten pertsona fisiko edo juridikoak, irabazi-asmorik gabekoak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Sariaren epaimahaiak aho batez erabaki zuen saria UNRWArekin Espainiako Komite Elkarteak proposatutako hautagaitzari ematea, hau da, UNRWA- Palestinako populazio errefuxiatuarentzako Nazio Batuen Agentziari, honako arrazoiengatik:

- Palestinako herriarekin duen 75 urteko konpromisoa, ibilbide eta dedikazioagatik, etengabeko gatazken testuinguruan, hain luze luzatzen ari den konponbide justu eta behin betikoaren zain.
- Justizia eta Palestinako herritarren giza eskubideen alde egiten duen zuzeneko lanaren alderik gizatiarrena ordezkatzegatik.



- Desagertzeko benetako arriskuaren aurrean defendatzeagatik, horrek biztanle palestinarrei babes-
eskubidea eta beren lur eta etxeetara itzultzeko eskubidea kentzea ekarriko bailuke.

Epaimahaiak ulertu zuen, halaber, saria UNRWari esleitzeak lagundu egingo lukeela errefuxiatu
palestinarrek bizi duten krisia eta gatazka ikustarazten eta euskal gizartea kontzientziatzen.

Hori izan zen 2024ko deialdira aurkeztutako hautagaitza bakarra, eta epaimahaiak aurreko urteetan saritu
gabeko hautagaitzak ere berreskuratu zitzakeen arren, ez zuen beharrezkotzat jo.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Saria emateko proposatutako pertsona edo erakunde kopurua	3	2
Ignacio Ellacuria saria jaso dutenak	1	1
Komunikabideetan egindako aipamen kopurua	40	45
Saritutako pertsonari edo erakundeari egindako elkarrizketa kopurua	3	6
Sentsibilizazio-bideoen bistaratze kopurua	90	6.000